



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2021eko abenduaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko abenduaren zortzian, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : CASIRIAIN Elena, LEKUMBERRY Xantxo  
**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : PERUSANSENA Elodie

Deialdiaren eguna : 2021eko abenduaren 3a  
Afitxatze eguna : 2021eko abenduaren 3a

### **4.ERABAKIA LANGILE BATEN KONTRATATZEA GIZARTERATZE KONTRATU BATEN BIDEZ**

Nomenklatura : 4.2

Auzapezak aurkezten du Herriko Kontseiluko kideei agente baten kontratatzearen proiektua, "Contrat Unique d'Insertion – Parcours Emploi Compétences (CUI-PEC)" delako gizarteratze kontratuean, 2022ko urtarrilaren 1etik goiti, herriko idazkaritzan.

Gizarteratze kontratua, kontratu lagundua da, enplegatzaile batzuek egina, batez ere lurraldeko elkargo eta beren bateratzeentzat. Zailtasun sozial eta lanaren atxemaiteko zailtasun profesionalak dituzten langabezia diren pertsoneri zuzendua da.

Astean 20 oreneko lan-denborako kontratua liteke.

Ordainsaria honela kalkulatu liteke : oinarritzko lan-saria (SMIC) + %10a x lan ordu kopurua.

Auzapezak proposatzen du Herriko Kontseiluari, baimena emaita Pôle Emploi-rekin hitzarmenaren eta 12 hilabeteko denbora mugatuko lan kontratuaren izenpetzeko,

Auzapeza entzunik xehetasun gehigarriak emaiten eta elgarrekin eztabaidaturik,

Herriko Kontseiluak,

- Auzapeza AHALBIDETZEN DU Pôle Emploi-rekin, hitzarmenaren eta denbora mugatuko lan kontratuaren izenpetzera, gizarteratze kontratupean agente baten kontratatzeko,

- ZEHAZTEN DU - kontratu hori 12 hilabetekoa izanen dela,

- lan denbora, asteka, 20 ordukoa izanen dela,

- ERRAITEN DU ordainsaria, oinarrizko lan-saria (SMIC) + %10a, lan egin ordu kopuruari biderkatuz, finkatuko dela.

- Auzapeza AHALBIDETZEN DU beharrezkoak diren urratsen eremaitera Pôle Emploi-rekin, kontratatze horren egiteko,

ZEHAZTEN DU beharrezkoak diren kredituak aurreikusiak direla aurrekonduan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko abenduaren 8an  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2021/12/21ean publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/12/21ean.